Eskabide ereduarekin aurkeztu beharko duen dokumentazioa:

– NANaren fotokopia.

Euskal etxeetako kideek pasaportea aurkeztu beharko dute.

– Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuaren 4. artikuluaren a) eta b) ataletan jasota dauden baldintzak akreditatzeko ziurtagiriak.

– Curriculum vitae, espediente akademikoarekin.

– Egindako ikasketen ziurtagiriak eta eskatzen duten bekarekin erlazioa duen esperientzia praktikoaren ziurtagiria. Meritu gisa kontuan izateko akreditatzen diren ikasketak, ofizialak izan beharko dira eta balio akademikoa izan beharko dute. 8. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera ezagutzen diren hizkuntzen ahozko eta idatzizko gaitasuna dokumentu akreditatibo bitartez egiaztatu ezin denean dagozkion frogak egin beharko dira.

– Eskatzaileak egin dituen lanen eta argitalpenen kopia.

– Karnetaren tamainako argazkia.

– Aurretik inoiz Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik ordaindutako beka berdin edo antzeko baten onuradun ez izanaren zinpeko aitorpena.

– Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten ez egotearen zinpeko aitorpena.

Documentación que deberá presentar junto al modelo de impreso

– Fotocopia del DNI

Los socios de Centros Vascos deberán presentar pasaporte

– Certificados acreditativos de los requisitos recogidos en las letras a) y b) del artículo 4 del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre

– Curriculum vitae, con inclusión del expediente académico

– Certificados de los estudios realizados y la experiencia práctica que tengan especial relevancia para la beca a la que se aspira. Los estudios que se acrediten, con objeto de ser computados como méritos, deberán tener carácter oficial y validez académica. Cuando no sea posible aportar documentos acreditativos de la capacidad de expresarse en forma oral o escrita en los idiomas cuyo conocimiento se valora como mérito según el artículo 8, deberá realizar las pruebas pertinentes.

– Copia de los trabajos y publicaciones realizados por el solicitante

– Una fotografía tamaño carnet

– Declaración jurada de no haber sido beneficiario con anterioridad de una beca de igual o similar naturaleza con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco

– Declaración jurada de no estar incurso/a en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública

## 2896

EBAZPENA, 2006ko maiatzaren 19koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, Europako Gaien eta Eskualdeen arteko Lankidetzaren arloetan profesionalen espezializaziorako 2006ko beken deialdia egiteko dena.

1998ko uztailaren 21eko 160/1998 Dekretuak Europako Gaien eta Eskualdeen arteko Lankidetzaren arloetan profesionalen espezializaziorako bekak arautzen ditu, profesional horien formazioa bultzatzeko.

Aipatutako dekretu horren 2. artikuluko 1 paragrafoaren arabera, bidezkoa da laguntza horietarako deia egitea 2006ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen pentzutan.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

*Artikulu bakarra.*– Deialdia.

Bederatzi beketarako deialdia egiten da, Europako Gaien eta Eskualde arteko Lankidetzaren arloetan pro-

## 2896

RESOLUCIÓN de 19 de mayo de 2006, del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan becas de especialización de profesionales en las áreas de Asuntos Europeos y Cooperación Interregional para 2006.

El Decreto 160 /1998, de 21 de julio, regula las becas de especialización de profesionales en las áreas de Asuntos Europeos y Cooperación Interregional, con el fin de impulsar la formación de dichos profesionales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 2, apartado 1, del citado Decreto, procede, por tanto, convocar las becas para 2006, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo único.*– Convocatoria.

Convocar nueve becas para impulsar la especialización de profesionales en las áreas de Asuntos Europeos

fesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzeko, onartzen diren oinarrien arabera. Oinarriak eranskinean daude. Eranskin bakarrean jaso dira horretarako onartu diren oinarriak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ebazpen honetan eta uztailaren 21eko 160/1998 Dekretuan aurreikusita ez dagoen guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen 30/1992 lege hori.

*Bigarrena.–* Interesatuek deialdi honen eta hortik ateratzen diren ekintza guztien aurka egin dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarrita dagoen moduan eta epean; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen 30/1992 lege hori.

*Hirugarrena.–* Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 19a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

ERANSKINA

EUROPAKO GAIEN ETA ESKUALDEEN ARTEKO LANKIDETZAREN ARLOETAN PROFESIONALEN ESPEZIALIZAZIORAKO BEKEN 2006. URTEKO DEIALDIKO OINARRIAK.

*Lehenengoa.–* Xedea eta beken iraupena.

Oinarri hauen xedea beken deialdia egitea da, Europako Gaien eta Eskualdeen arteko Lankidetzaren arloetan profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzeko. Beka hauen iraupena hamabi hilabetekoa izango da. Bekadunek beraien eginkizunak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian eramango dituzte aurrera Gobernu Batzordeak 2006ko maiatzaren 16an onartutako Akordioaren arabera. Akordio honek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren esparruan, bekadunek beraien eginkizunak Administrazioaren bulegoetan aurrera eramatea baimentzen du.

*Bigarrena.–* Dotazioa eta ordainketa.

Beken dotazioa eta ordainketa ondorengoa izango da:

a) 22.500 euro, bost beketako bakoitzak. Beken xedea Bruselan Europar Batasunaren errealitatea hurbiletik aztertzea da. Diru-kopuru horri dagokion atxikipen fiskala egingo zaio. Lehenengo ordainketa 10.027 eurokoa izango da, eta beka esleitu ondoren emango da.

y Cooperación Interregional, con arreglo a las bases que se aprueban y figuran en el anexo único.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* En lo no previsto en la presente resolución y en el Decreto 160/1998, de 21 de julio, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

*Segunda.–* La presente convocatoria y cuantos actos se deriven de ella podrán ser impugnados por los interesados en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

*Tercera.–* La presente resolución surtirá efectos desde el día siguiente al de la fecha de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de mayo de 2006.

El Secretario General de la Presidencia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

ANEXO

BASES DE LA CONVOCATORIA DE LAS BECAS DE ESPECIALIZACIÓN DE PROFESIONALES EN LAS ÁREAS DE ASUNTOS EUROPEOS Y COOPERACIÓN INTERREGIONAL PARA 2006.

*Primera.–* Objeto y duración de las becas.

Las presentes bases tienen por objeto convocar becas destinadas a impulsar la especialización y formación de profesionales en las áreas de Asuntos Europeos y Cooperación Interregional, que tendrán una duración de doce meses. Las personas becarias llevarán a cabo su actividad en la Secretaría General de Acción Exterior, de conformidad con lo establecido en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 16 de mayo de 2006, por el que se autoriza que en las becas que se convocan en el ámbito de la Secretaría General de Acción Exterior, las personas becarias lleven a cabo su actividad en las dependencias de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Segunda.–* Dotación y pago.

La dotación y el pago de las becas será el siguiente:

a) 22.500 euros, cada una de las cinco becas cuyo objeto es analizar de cerca la realidad de la Unión Europea en Bruselas. Este importe estará sujeto a la retención fiscal correspondiente en razón de la actividad realizada. El primer pago se efectuará tras la adjudicación

Bigarren ordainketa, 6.240 eurokoa, bekaz baliatzen hasten denetik bost hilabete igaro ondoren, eta aldez aurretik bekadunaren jardueren garapenari buruzko aldizkako txosten bat aurkeztu ondoren. Hirugarren ordainketa, 3.120 eurokoa, bigarren ordainketatik bost hilabete igaro ondoren eta aldez aurretik dagokion aldizkako txostena aurkeztu ondoren. Laugarren eta azken ordainketa, 3.113 eurokoa, betetako ekintzen memoria-balantzea aurkeztu eta onartu ondoren egingo da.

b) 15.000 euro, Euskal Autonomia Erkidegoan Europako gaiak aztertzeko garatu beharko diren lau beketako bakoitzarentzat. Laguntza hauek jasoko dituztenek Gasteizen egingo dute lana. Diru kopuru horri dagokion atxikipen fiskala egingo zaio. Lehenengo ordainketa 7.500 eurokoa izango da eta beka esleitu ondoren egingo da. Bigarren ordainketa, 3.750 eurokoa, bekaz baliatzen hasten denetik bost hilabete igaro ondoren, eta aldez aurretik bekadunaren jardueren garapenari buruzko aldizkako txosten bat aurkeztu ondoren. Hirugarren ordainketa, 1.875 eurokoa, bigarren ordainketatik bost hilabete igaro ondoren eta aldez aurretik dagokion aldizkako txostena aurkeztu ondoren. Laugarren eta azken ordainketa, 1.875 eurokoa, betetako ekintzen memoria-balantzea aurkeztu eta onartu ondoren egingo da.

*Hirugarrena.–* Aurkezteko lekua.

Eskaerak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira, helbide honetan:

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.
Lehendakaritza.
Nafarroa kalea, 2.
01007 Vitoria-Gasteiz.

Interesatuek eskura dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, eskaerak formalizatzeko inprimaki modeloa. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerketa Errektoreordetzan, Araba eta Gipuzkoako Campusetako Errektoreordetzatan, Deustuko Unibertsitatearen Ikerketa Errektoreordetzan eta Eusko Jaurlaritzaren web orrian: www.ej-gv.net.

*Laugarrena.–* Aurkezteko epea.

2006ko uztailaren 5eko 12:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira eskabideak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako edozein bidez. Eskabideak aurkezteko, uztailaren 21eko 160/1998 Dekretuan eskatzen diren betekizunak bete beharko dira.

de la beca, y será por importe de 10.027 euros. El segundo abono, por importe de 6.240 euros, transcurridos cinco meses desde el inicio del disfrute de la beca y previa presentación de un informe periódico sobre el desarrollo de las actividades del becario. El tercer abono, por importe de 3.120 euros, transcurridos cinco meses desde el segundo abono y previa presentación del informe periódico correspondiente. El cuarto y último pago, de 3.113 euros, se realizará tras la presentación y aprobación de una memoria-balance de las actividades llevadas a cabo, que acredite el aprovechamiento de la beca.

b) 15.000 euros, cada una de las cuatro becas cuyo objeto es analizar los asuntos europeos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en Vitoria-Gasteiz. Este importe estará sujeto a la retención fiscal correspondiente en razón de la actividad realizada. El primer pago se efectuará tras la adjudicación de la beca, y será por importe de 7.500 euros. El segundo abono, por importe de 3.750 euros, transcurridos cinco meses desde el inicio del disfrute de la beca y previa presentación de un informe periódico sobre el desarrollo de las actividades del becario o de la becaria. El tercer abono, por importe de 1.875 euros, transcurridos cinco meses desde el segundo abono y previa presentación del informe periódico correspondiente. El cuarto y último pago, de 1.875 euros, se realizará tras la presentación y aprobación de una memoria-balance de las actividades llevadas a cabo, que acredite el aprovechamiento de la beca.

*Tercera.–* Lugar de presentación.

Las solicitudes deberán remitirse a la siguiente dirección:

Secretaría General de Acción Exterior.
Lehendakaritza.
C/ Navarra, 2.
01007 Vitoria-Gasteiz.

Las personas interesadas encontrarán a su disposición en la Secretaría General de Acción Exterior, un modelo de impreso para la formalización de las solicitudes. Asimismo, podrán ser recogidos en el Vicerrectorado de Investigación de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en los Vicerrectorados de los Campus de Álava y Gipuzkoa, y en el Vicerrectorado de Investigación de la Universidad de Deusto o también en la página web del Gobierno Vasco: www.ej-gv.net.

*Cuarta.–* Plazo de presentación.

Las personas interesadas que cumplan los requisitos exigidos en el Decreto 160/1998, de 21 de julio podrán presentar las candidaturas por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, antes de las 12:00 horas del día 5 de julio de 2006.

***Bosgarrena.–*** Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

1.– Aurkeztutako agiriek zerbait falta badute, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hamar eguneko epea emango dio pertsona edo erakunde eskatzaileari, agiri osagarriak aurkezteko.

2.– Epe hori igarota –jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatu beharko da-, eskatzaileak laguntzari uko egin diola ulertuko da. Hori baino lehen, ebazpen bat eman beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan jarritako moduan.

***Seigarrena.–*** Esleitzea eta argitaratzea.

1.– Lehendakaritzaren idazkari nagusiak ebatziko du deialdia, uztailaren 21eko 160/1998 Dekretuan araututako Hautespen-Batzordeak proposatuta.

Ebazpen horrek, administrazio-bidea amaituko baitu, beken esleipendunen zerrenda jasoko du I. eranskinean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Eskatzaile guztiei emango zaie ebazpenaren berri.

2.– Bekak esleitzeko ebazpenak, halaber, II. eranskina izango du, eta esleitutako beka guztietarako ordezkoak izendatuko dira hor. Ordezko horiek, arlo bakoitza eta ordezkotza-hurrenkera kontuan hartuta, lehentasuna izango dute bekadun izateko, ukoren bat edo beste edozein gorabehera gertatzen denean.

3.– Ebazpen honen babesean egindako eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epea, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 6 hilabeteko epean amaituko da. Epe horretan interesatuari ezelako ebazpenik jakinarazten ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela esan nahiko du, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

***Quinta.–*** Subsanación de defectos en las solicitudes.

1.– En el supuesto de que la documentación presentada fuera incompleta, la Secretaría General de Acción Exterior requerirá a la persona o entidad solicitante para que en el plazo de diez días remita la documentación complementaria.

2.– Transcurrido dicho plazo, a contar desde el día siguiente al de su notificación, se le tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común.

***Sexta.–*** Adjudicación y publicación.

1.– La convocatoria será resuelta por Resolución del Secretario General de la Presidencia, a propuesta de la comisión de selección regulada en el Decreto 160/1998, de 21 de julio.

Dicha resolución, que agotará la vía administrativa, comprenderá en su anexo I la relación de personas adjudicatarias de las becas, se notificará individualmente a los solicitantes y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, para su general conocimiento.

2.– La resolución de adjudicación incluirá, asimismo, un anexo II que designará un suplente por cada beca adjudicada, que tendrán preferencia, dentro de cada área y según el orden de suplencia, para sustituir casos de renuncia o cualquier otra posible incidencia.

3.– El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes formuladas al amparo de la presente resolución será de seis meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la misma. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la persona interesada resolución alguna podrá entenderse desestimada la petición de subvención, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.